

Kartoizko kutxak nola eginak dira ?

Oharrak

Bulegoetan sailkatzeko erabiltzen diren kartoizko kutxak ere erabil daitezke ariketa honetan.

Azalpena

- Irakasleak eta hurrek kartoizko kutxak ekartzen dituzte etxetik.
- Kutxa horiek artoski desegin eta, kartoia urratu gabe, zabal-zabalik eman.
- Hurrek (bakarka edo taldean) gogoeta egoera baten aitzinean dira : Nola egin orri honetatik kartoizko kutxa bat ?
- Zenbait denboraz gogoetan ari dira kartoia manipulatu gabe.
- Aterabidea aurkitu eta, kutxa muntatzen dute plegadurei jarraikiz.
- Egin duten eskulanaren muntai-fitxa idazten dute kronologia errespetatuz eta urratsak ongi bereiziz.

Ikaslearen fitxa

Ondoko orrialdea ikasle taldeari eman. Argibideei jarraikiz kutxa eraiki behar dute. Ondotik muntaia-fitxa idatz lezakete.

Abiapuntua

Kartoizko kutxa bat deseginik, zabal zabala emana da.

Gogoeta-egoera :

Nola egin gauza honetatik kutxa bat ? Kartoizko kutxa nola eraiki ?

Hipotesia batzuk

Galde-egoerari ihardesteko, hurrek kartoi orriari begiratzen diote eta ikertzen ari dira. Badituzte ideiak eta frogatu nahi dituzte.

Egiaztatuko duen jarduera

Kartoia eskuetan manipulaturik, hurrek beren ideiak gauzatzen dituzte eta eraikitzen saiatzen dira, hots kartoi kutxari hasierako forma ematen.

Beren lanaren emaitza besteei erakusten diete.


Ororen buru zer ?

Haur bakoitzak egin duen lana kontatzen du urratsak ongi bereiziz eta kronologiari jarraikiz.

Kartoizko kutxaren berregiteko muntaia-fitxa idatzi. Beste ikasgela bati eman, fitxa baliatuz erabilgarria dela frogatu dezaten.

Kartoizko kutxa	Helburua :	Gaiari doakion jakintasun :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
-----------------	-------------------	------------------------------------	--

Argibideei jarraikiz, kartoizko kutxa eraiki. Ondotik muntaia-fitxa idatz.



..... plegatu
 ————— moztu
 bederen 20 g-ko papera

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	